


IRAILAK 16 | LARUNBATA | 2023

HERRITARREN XIX. MARTXA OINEZKOEN PAUSORA

#HUNKITULEIOA




Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO



LEIOA

HERRI ZEBRADUNA

LEIOAK hunkitu egiten du!



20 urte betetzear direla, herritarren martxa eta bere zebra kutuna gure hiria pertsona guztientzat gero eta leku atsegina, eskuragarriagoa eta osasungarriagoa bihurtzeko konpromiso kolektiboaren metaforarik onena ihurtu dira.

Hiri bat espazio komun bat da zeinetan pertsonak elkarrekin bizi eta erlazionatzen garen. Topaketa izugarri horietan kaleak arimaz betetzen ditugu, elkarrekin sortzen ditugun zirrara eta sentimenduak hiriari erantsiz. Horregatik hain zuzen ere, gure herritarrengatik, aurtengo leioa aukeratu dugu: Leioak hunkitu egiten du!

Gure hiria nola bizi dugun hobeto ezagutzeko asmoz, aurten emozioz beteriko ibilaldia proposatzen dizuegu. Alde batetik, elkarrekin, denok batera ibiltzen ibilbidea egitea da kontua, iaz zuen iradokizunean jaso genuen eskaera izan zen eta. Baina gure hiria entzuteko ibilbidean zehar gelditzea ere proposatzen dizuegu. Lekuak nola erabiltzen ditugun, nola gogoratzen, zaintzen eta gozaten ditugun edota nola baztertzen ditugun ohartaraztea da asmoa, horrek definitzen baitu nolakoa den guztion artean sortzen dugun hiria.

Leioaztarrak irailaren 16an, larunbata, 2023ko Europako Mugikortasunaren Astearen barruan antolatzen den gure ohiko

“Oinezkoen Pausura Ibilaldia-n” partehartzera gonbidatzen zaituztet -eta jakina, urtero gure martxa egitera hurbiltzen diren alboko herrietako lagunei ere-. Aurten gainera, jolas desberdin eta iradokitzaile bat proposatzen digute Herrigune Leioatik: udalerriko leku batzuen **kartografia emozionala** elkarrekin egitea. Hirian nola hunkitu eta mugitu egiten garen hobeto ezagutzea da helburua.

Bukatzeko gogoratu nahi dizuet irailaren 22an Europa osoan “**Kotxerik gabeko eguna**” ospatzen dela. Gidatzen dugunok saia gaitezen egun horretan autoa etxean uzten eta ibiltzen, bizikletan edo garraio publikoan joaten. Garrantzitsua da, bai osasunerako zein ingurumenerako, hirian autoa modu irrazionalean eta gehiegikeriaz erabiltzeak dituen ondorio kaltegarriak buruz sentibilizatzen eta kontzientziatzen jarraitzea. Zalantzarik gabe, Leioan bizi garen pertsona guztientzat askoz onuragarriagoak diren mugitzeko beste modu batzuk daude.

Iban Rodriguez Etxebarria
LEIOAKO ALKATEA



UU NOLA PARTE- HARTU

Berriz bueltan gaude!

Iaz parte hartu zenuten askok proposatuta, Martxaren forma klasikoa berreskuratu dugu: aurten denak batera irtengo gara!

Martxa zure esperientziarik onena izan dadin hona hemen iradokizun batzuk:



Ibiltzea mugitzeko modurik osasungarriena da: zuretzat eta zure inguru osoarentzat: sustatu eta praktikatu!

Ez ahaztu ezinbestekoa: oinetako onak -edo batera kargatua gurpildun aulki elektrikoan bazoaz-, kantiplora bat urarekin -mapan aurki ditzakezue ibilbideko iturrietako batzuk-, fruitu lehorrak eta euritik edo eguzkitik babesteko zerbait beharrezkoa izanez gero. Gogoratu, euria egiten badu ere, planak aurrera jarraitzen duela:



komunitatean egun batez gozatzeko.

Baldin baduzue, aurreko urteetako martxako kamiseta bat erabili. Hitz ematen dizuegu azkena izango dela... Ikusiko duzue!

Garrantzitsua da irteerara denbora nahikoarekin iristea. Martxa puntualtasunez hasten



da eta jolaserako zenbait material eskuratu behar dira gurekin kartografiatu nahi baduzue.

Gogoratu “Leioako Oinezkoen Pausura” Herritarren Martxa EZ DELA LASTERKETA BAT: ekintza komunitarioa da. Hemen ez du inork irabazten. Aldiz, beharrezkoa izan daitekeen tartetan, behar duten pertsonen zure laguntza eskaintzen badiezu, asko irabazten dugu. Lasai ibili: paseatu, behatu, sentitu eta besteei lagundu.

Lagundu ahal duzun horretan behar duen horri: bere haur txikiaren kotxetxoari bultzaka dabilen guraso horri txandaren bat eginez, atsedean hartzera gelditu den horri lagunduz, indargabetua dagoenaren gogoia berotuz, ondoan dituzunak zainduz.



Martxa, zure bizilagun txikiak eta zaharrenak ezagutzeko aukera paregabea da; haiekin esperientziak, istorioak eta kezak trukatzeko; gero eguneroko

bizitzan ezagutu ahal izateko. Ez alferrik galdu aukera hau, bakarrik lehena izan nahi duzulako: lagundu eta lagunduta sentitu!

Zure parte hartzearekin Leioak bere erritmoa aldatu dezake: Martxan zenbat eta jende gehiagok parte hartu, are handiagoa izango da Leioari taupada markatzeko izango dugun gaitasuna: Oinezkoen pausura!

Martxak, komunikaziorako eta harremanetarako espazio bat eskaintzeaz gain, parte-hartzen ikasteko espazio osasungarri bat da. Aprobetxatu martxan egongo diren zinegotziak ezagutzeko: haiekin hitz egin, entzun eta partekatu, galdetu eta aditu: Elkarrekin komunitateaz hitz egiteko aukera bat da.

Edozein zalantza izanez gero, Whatsapp/Telegram bat idatzi edo deitu Herrigune Leioako Herritarren Laborategiko zenbakira (martxa baino lehen edo martxan zehar): 627 50 38 98.



XIX. MARTXARAKO JOKO-ARAUAK




1. 11:00etan Sakoneta kiroldagitik izango da **IRTEERA**. Saiatu puntualak izaten, mesedez.




2. Garrantzitsua da garaiz iristea -10:00etatik 10:30era egotea gomendatzen dizugu-, kartografiarako materialak jaso ahal izateko.



3. Ibilaldia espaloietatik eta zebra bideetatik egingo dugu aukera dugun heinean, eta posible ez denean, mesedez, laguntza eskatu.



4. Bidean zabiltzala, kolore laranja zebra batzuk ikusiko dituzu lurreen margotuta. Euren buruak markatzen du Martxaren norabidea.



5. Elkarguneak: oinezkook elkarguneetan txartel batzuk jaso behar ditugu kartografia emozionala egiteko. Gogoan izan, helmugara iritsi arte gorde egin behar dituzula, denak beharko baitituzu oparia jasotzeko.



Azken gauza bat: erabili **#leioain** hastag-a zure proposamenak igotzeko, zure iritziak emateko edo

Twitter (@herrigune) edo Instagram (@herriguneleioa) bidez martxari argazkiak ateratzeko. Adieraz diezaguzu!



ETA IBILALDIAREN AMAIERAN...



Herritarren partaidetzarako apustu berria da, zeinetan herritarrek ekimen komunitarioak edo erronka kolektiboak proposatzeaz gain, udalarekin batera haien garapenean lan egiten dute.

Irailaren 12tik 25era Leioaztarren egunerokoa hobetu dezaketzen proposamenak jaso nahi ditugu hurrengo bi urteetan garatuko den erronka kolektiboa batera erabakitzeko eta elkarrekin lan egiten ikasten jarraitzeko.

Kirol jarduera familian

Leioako UK Eren ildo estrategikoari jarraituz, Oinezkoen XIX. Ibilaldia aprobetxatu nahi dugu gure udalerrian kirol jarduera familian sustatzen jarraitzeko. Egun horretarako, Ibilaldiaren etorreran, hainbat jarduera izango ditugu: giza futbolina, badmintona, golfa... **Animatu zaitetz!**

Horrez gain, irailaren 17an yoga eta kalistenia jardunaldia prestatuko dogu. Yogako saioa Artaza jauregiko parkean eta kalisteniak Sarrienako edota Artazako parkean (inskribatutako kopuruaren arabera parke batean edota bietan egingo da).



QR IRAKURRI
ETA MAPA EZAGUTU
ESCANEA EL QR
Y CONOCE EL MAPA



ANTOLATZAILEA ORGANIZA



PARTEHARTZAILEAK PARTICIPAN



ERAKUNDEAK ENTIDADES



↑ 97 m · ↓ 105 m



-  **IRTEERA SALIDA**
-  **MENDIBILE**
-  **PINOSOLO**
-  **ONDIZ**
-  **UMEEN KONTSEILUA**
-  **ITURRIA FUENTE**
-  **IBILBIDEA RECORRIDO**
-  **HELMUGA LLEGADA**